Bestelako Xedapenak

NEKAZARITZA, ARRANTZA ETA ELIKADURA SAILA

1636

EBAZPENA, 2009ko otsailaren 17koa, Nekazaritza eta Abeltzaintza zuzendariarena, Euskal Autonomia Erkidegoko Nekazarien Elkarteei eta horien Batasunei buruzko urtarrilaren 20ko 13/2004 Dekretuaren esparruan 2008ko ekitaldian emandako diru-laguntzak argitara ematekoa.

Urtarrilaren 20ko 13/2004 Dekretuak, Euskal Autonomia Erkidegoko Nekazarien Elkarteei eta horien Batasunei ematekoak diren diru-laguntzak ezartzen ditu.

Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura sailburuaren 2008ko urriaren 2ko Aginduaren bidez, urtarrilaren 20ko 13/2004 Dekretuan araututako laguntzen deialdia egin zen 2008. urterako.

Azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuaren 49.2 artikuluko bigarren paragrafoan aurreikusitakoarekin bat (Dekretu horrek Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko testu bategina onetsi zuen), eta, ebazpenak banan-banan jakinarazi behar badira ere, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu behar dira agindu horren babesean emandako diru-laguntzen kopuru osoa eta onuradunen zerrenda.

Aurreko guztia kontuan hartuta, honako hau

EBATZI DUT:

Lehenengoa.– Euskal Autonomia Erkidegoko Nekazarien Elkarteei eta horien Batasunei buruzko urtarrilaren 20ko 13/2004 Dekretuaren esparruan 2008ko ekitaldian emandako diru-laguntzen onuradunen zerrenda argitara ematea.

Bigarrena.– Ebazpen honen aurka, interesdunek gorako errekurtsoa jar diezaiokete Nekazaritzaren eta Arrantzaren Garapeneko sailburuordeari hilabeteko epearen barruan, ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik kontatzen hasita.

Vitoria-Gasteiz, 2009ko otsailaren 17a.

Nekazaritza eta Abeltzaintza zuzendaria,
EDUARDO AGUINACO LÓPEZ DE SUSO.

Otras Disposiciones

DEPARTAMENTO DE AGRICULTURA, PESCA Y ALIMENTACIÓN

1636

RESOLUCIÓN de 17 de febrero de 2009, del Director de Agricultura y Ganadería, por la que se hace pública la relación de beneficiarios de las ayudas económicas concedidas durante el ejercicio 2008 en el marco del Decreto 13/2004, de 20 de enero, de Agrupaciones de Productores Agrarios y sus Uniones en la Comunidad Autónoma del País Vasco.

El Decreto 13/2004, de 20 de enero, establece el régimen de ayudas a las Agrupaciones de Productores Agrarios y sus Uniones en la Comunidad Autónoma del País Vasco.

Mediante Orden de 2 de octubre de 2008, del Consejero de Agricultura, Pesca y Alimentación, se convocaron, para el año 2008, las ayudas previstas en el mencionado Decreto 13/2004, de 20 de enero.

En cumplimiento de lo establecido en el apartado 2, párrafo segundo, del artículo 49 del Decreto Legislativo 1/1997, de 11 de noviembre, por el que se aprueba el Texto Refundido de los Principios Ordenadores de la Hacienda General del País Vasco, y sin perjuicio de la notificación individualizada de la resolución correspondiente, se publicará en el Boletín Oficial del País Vasco el total de las subvenciones y personas beneficiarias al amparo del mismo.

Por todo ello,

RESUELVO:

Primero.– Publicar la relación de beneficiarios de las ayudas económicas concedidas durante el ejercicio 2008 en el marco del Decreto 13/2004, de 20 de enero, de Agrupaciones de Productores Agrarios y sus Uniones en la Comunidad Autónoma del País Vasco, que se adjunta como anexo de la presente Resolución.

Segundo.– Contra la presente Resolución los interesados podrán interponer recurso de alzada ante el Viceconsejero de Desarrollo Agrario y Pesquero en el plazo de un mes a contar desde el día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

En Vitoria-Gasteiz, a 17 de febrero de 2009.

El Director de Agricultura y Ganadería,
EDUARDO AGUINACO LÓPEZ DE SUSO.

ERANSKINA / *ANEXO*

Euskal Autonomia Erkidegoko Nekazarien Elkarteei eta horien Batasunei buruzko urtarrilaren 20ko 13/2004 Dekretuaren esparruan 2008ko ekitaldian emandako diru-laguntzen onuradunen zerrenda

Relación de beneficiarios de las ayudas económicas concedidas durante el ejercicio 2008 en el marco del Decreto 13/2004, de 20 de enero, de Agrupaciones de Productores Agrarios y sus Uniones en la Comunidad Autónoma del País Vasco

Onuradunak *Beneficiarios*	Diru-laguntza (eurotan) *Subvención (en euros)*
Cooperativa Agrícola Nuestra Señora de Ocon	100.000
Garlan, Sociedad Cooperativa	100.000